BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3988

AGINDUA, 2023ko uztailaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, Vitoria-Gasteizko (Araba) «NCLIC Zabalgana» Haur Eskola Pribatuari jarduerak bertan behera uzteko baimena emateko dena.

Vitoria-Gasteizko (Araba) «NCLIC Zabalgana» Haur Eskola Pribatuaren titularra den «Tapetei SL» enpresak eskatuta hasitako espedientea aztertu da. Espediente horretan «NCLIC Zabalgana» ikastetxearen jarduerak bertan behera uzteko eskatzen da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, eta indarrean dagoen araudiak eskatutako dokumentazioa erantsi zaio espedienteari, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek txostena egin dute.

Arau hauek ikusi dira: azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua (19ko EHAA), 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzekoa, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan); abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua (abenduaren 31ko EHAA), 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautzen dituena. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari bere jarduerak bertan behera uzteko baimena ematen zaio:

Kode-zenbakiak: 010501 (EAE) eta 01006526 (unibertsala).
Izen orokorra: Haur Eskola Pribatua (HEPR).
Izen espezifikoa: «NCLIC Zabalgana».
Titularra: «Tapetei SL»
Helbidea: Nazio Batuen hiribidea 5 eta 7.
Udalerria: Vitoria-Gasteiz
Lurralde Historikoa: Araba.

Bigarrena.– Jarduerak bertan behera uzteko baimenak 2023-2024 ikasturtetik aurrera izango ditu ondorioak, eta une horretan baja eman beharko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeen Erregistroan daukan inskripzioari. Ikastetxeari Haur Hezkuntzako 1. zikloa irakasteko baimena ematen zion agindua ondoriorik gabe geratuko da egun horretatik aurrera.

Hirugarrena.– Ikastetxe hori berriro irekitzeko eskatuz gero, ikastetxe pribatuak baimentzearen arloan indarrean dauden xedapenetan jasotako aginduak bete beharko dira.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia

Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 27a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.